

Lanbide Heziketako ikasleen lanbide prestakuntzaren bitartez Gipuzkoako enpresetan euskararen erabilera handitzeko proiektua

# GEHITU PROIEKTUA

2014

Ikerketaren emaitzak eta proposamenak



2014-11-13



## AURKIBIDEA

---

	Orrialdea
<b>1. Proiektuaren kokapena</b>	3
<b>2. Testuingurua: Lanbide Heziketa eta euskarazko prestakuntza Gipuzkoan</b>	4
<b>3. Ikerketaren balorazio orokorra</b>	8
<b>4. Jasotako daturik esanguratsuenak</b>	9
<b>5. Aldagien arteko harremanen analisia</b>	18
<b>6. Ikerketaren ondorioak</b>	22
<b>7. Lanari euskaraz ekiteko bide-orria</b>	23
<b>8. Eranskinak: Galdetegiak</b>	26

---

## 1. Proiektuaren kokapena

Gehitu egitasmoak Lanbide Heziketako ikasleen praktiketako hizkuntza kudeaketan jarria du fokua, bide batez enpresen euskalduntzean eragiteko. Urtero ehunka ikaslek egiten dituzte praktikak enpresetan, eta bide horrek enpresetan eragiteko leiho bat irekitzen digu. D ereduko ikasleek euskaraz egin dituzte ikasketak, hiztegi teknikoa landu dute, eta gauzak euskaraz egiten ikasi dituzte.

Lantokiko prestakuntza une garrantzitsua da ikasleentzat. Kasu gehienetan, enpresarekin izan duten lehen harremana izan da, eta arrasto garrantzitsua uzten du esperientziak; eta askotan, lehen kontratua lortzeko aukera da, praktiken ondoren, enpresan geratuko baitira lan kontratua sinatuta.

Zenbait ikasleren iritzietan ikus dezakegu une garrantzitsua izan dela: “He estado muy a gusto, las compañeras me han tratado y enseñado lo mejor que han podido. No he tenido ninguna queja. He aprendido mucho con ellas”, “Oso ongi dena, oso gustura egon naiz”, “Ondo tratatu naute eta gauzak ondo esplikatzen dituzte”, “Praktikak egin ditudan enpresarekin oso pozik nago”, “Oso gustura egon naiz, jatorrak, adeitsuak... izan dira nirekin”, “Lan giroa ezin hobea, primeran ibili naiz euskal giroan, jende jatorra, talde lana nagusi, hau da gustuko dudana!!! Horrela izan beharko litzake beti! Eskerrik asko.”

Egitasmo honen aurrekariak dira:

- Oarsoaldean aurretik egindakoak, eta egitasmoari hedadura handiagoa eman beharra.
- Elgoibarko Udalarekin ere herriko enpresetan eragiteko abiatutako egitasmoa.
- 2013 urtean Gipuzkoan egin genuen lehen datu bilketa eta ikerketa.

Bigarren fase honetan datu bilketa egin dugu berriro ere, eta, ondoren, 30+10 mintegian landuko dugu gaia eragileekin.

Proiektu honetan, IMH, Ahize-AEK hizkuntza aholkularitza eta LANEKI elkarteaz gain, Ikaslan, Hetel, Aice-Izea eta Ikastolen Elkarteko partaideak diren Gipuzkoako **39** ikastetxek eta 1.457 ikaslek parte hartu dute.

Gure eskerrak guztiei eta baita Gipuzkoako Foru Aldundiari, proiektuari laguntzeagatik.

## 2. Testuingurua: Lanbide Heziketa eta euskarazko prestakuntza Gipuzkoan

Euskal Herriko Lanbide Heziketa eta enpresa mundua lotzen duten arloak Lantokiko Prestakuntza, Hezibi, Lehen aukera, Duala, ikastaroak eta ikastetxe-enpresen arteko elkarlanak edo proiektuak dira.

Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren irakaskuntzak honela daude antolatuta:

- Hasierako lanbide-kualifikazioko programen berariazko lanbide-moduluak. (HLKP)
- Erdi-mailako heziketa-zikloak
- Goi-mailako heziketa-zikloak.
- Aurrerago: espezializazio-kurtsuak

Lanbide Heziketa laneko kontuekin eta lan-merkatuarekin estuen lotuta dagoen ikasketa-multzoa da, eta, gaur egun, norberaren bizi guztian lantzeko prozesutzat jotzen da; hots, Lanbide Heziketaren barruan, prestakuntza arautua (eskola-adineko neska-mutilena), enplegurako prestakuntza (lanean dabiltzanena) nahiz gaitasun profesionalen aitortza sartzen dira.

Lanbide Heziketan euskara, oraindik ere maila baxuetan dago, nahiz eta DBH eta Batxilerra maila altuetan egon, eta zer esanik ez Lantokiko prestakuntzan. Enpresa mundua ere euskalduntzeko pausuak eman beharra dago eta etenik gabe gaia lantzea eta aurrera pausoak ematea ezinbestekoa da.

Gipuzkoan 11.963 ikasle dira Lanbide Heziketa ikasten ari direnak eta 5.523 ikasle euskaraz ikasten dutenak (*datuak Hezkuntza Saileko web orritik jaso dira.*). Aldea handia da eta DBH edo Batxilergotik dagoen aldea proportzio gabekoa da. Horren azterketa eta ezagutza behar da, zein bide jarraitu behar den jakiteko.


Lanbide Heziketak 23 familietan bildutako 150 titulu inguru eskaintzen ditu, ikasleek lanbiderako gaitasuna lor dezaten, eta lan kualifikazioak eskuratu. Tituluak multzo profesionaletan biltzen dira, eta modulu esaten zaien 800 bat irakasgai dituzte: eduki teoriko eta praktikoak dituzte eta derrigorrezko modulua den enpresan lan egiteko praktikaldia ere.

Lanbide Heziketa bere dekretu propioa du eta bere baitan ez da agertzen euskarazko eskaintzaren inguruko gairik. Lanbide Heziketako Sailburuordetzak ateratako aginduen edo LH planen bidez jorratzen dira, baina hauetan ere ez da aipatzen zein eredutan eman behar diren heziketa zikloak. Ikastetxeak berak aukeratzen du zein izango den eredu (lekuaren, ikasle tipologia, irakaslearen titulazio profilararen arabera) eskaini eta Sailburuordetzak onetsi egiten du; Ikusi zehaztasunak 1. Eranskinean.


### GIPUZKOAKO MATRIKULAZIO DATUAK:

Beraz, gauzak horrela, Lanbide heziketako ikasleen matrikulazio datuek gora egin dute urtez urte, baina ez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoaren neurri berean, eta 2014-2015 ikasturtean, izena eman duten ikasleen %46,17 matrikulatu dira D eredu Lanbide Heziketan. Ikusi zehaztasunak 2. Eranskinean.


MATRIKULA - GIPUZKOA  
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEAK



MATRIKULA - GIPUZKOA  
BATXILERGOKO IKASLEAK



MATRIKULA - GIPUZKOA  
LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOETAKO IKASLEAK



## LEGE ARAUDIA

Hurrengo Lege, Dekretu eta Aginduek arautzen dute Lanbide Heziketa, eta, bide batez, Lantokiko Prestakuntzaren modulua:

- [156/2003 Dekretua](#): Lanbide Heziketako Heziketa Zikloetako Lantokiko Prestakuntzako modulua egiteko modua arautzen duena.
- 2/2006 Lege Organikoa: Hezkuntzari buruzkoa, Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak ezartzen dituena.
- 175/2007 Dekretua: Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzekoa. Dekretuaren 29. artikuluan, Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programen oinarrizko alderdiak azaltzen ditu.
- 32/2008 Dekretua: [Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena](#)
- 4160/2008 Agindua: Euskal Autonomia Erkidegoko Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak arautzekoa. Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak arautzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoan. Horrez gain, Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programetan parte hartzen dutenek Lantokiko Prestakuntzako modulua, hau da, enpresatan praktikak nahitaez egin beharra ezartzen du aipatu Aginduak.
- 2667/2011 Agindua: Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programetan Lantokiko Prestakuntza modulua egitea arautzen duena.
- 2808/2011 Agindua: 2667 Aginduaren hutsak zuzentzen dituena.

Hemen ditugu BOEn argitutako legedirako loturak:

- [RD 1635/95, LH berriazko espezialitate berriei irakasleen esleipenari buruzkoa](#)
- [RD 777/98 LHko ordenazioko zenbait aspektu garatzen duena](#)
- [AGINDUA LH inpartitzeko gutxienenzko titulazioei buruzkoa](#)
- [RD 1128/2003, Lanbide kualifikazioen Katalogo Nazionalari buruzkoa](#)
- [RD 1558/2005 LHko ikastetxe integratuei buruzkoa.](#)
- [lehengoa aldatzen duena](#)
- [LOE: Hezkuntzako Lege Organikoa](#)
- [REAL DECRETO 1538/2006, LH arautzen duena](#)
- [RD 1834/2008 : LH eta Bigarren Hezkuntza inpartitzeko prestakuntza](#)

2014ko Gabonetarako EJko Lanbide Heziketako Euskal Planak argia ikusiko du eta asmoa dago EJko legealdi honetan Lanbide Heziketarako legeak argia ikusiko duela. Aukera hauek onak izaten dira Lanbide Heziketan euskararen presentzia areagotzeko.

**1. TAULA:**

**LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOEN ESKAINTZA KOPURUA EREDUEN ARABERA**

<b>GIPUZKOAN</b>	<b>13-14</b>	<b>14-15</b>
A EREDUA	98	67
D EREDUA	93	89
AD EREDUA	78	106
GUZTIRA	269	262

**2. TAULA:**

**LANBIDE HEZIKETAKO "D" Ereduko MATRIKULA DATUAK BEHIN-BEHINEKOAK**

<b>Matrikula</b>	<b>ERDI MAILA</b>	<b>GOI MAILA</b>	<b>GUZTIRA</b>
ARABA	240	540	780 (%11,99)
BIZKAIA	1.003	1.556	2.559 (%15,32)
GIPUZKOA	2.020	3.503	5.523 (%46,17)
GUZTIRA	3.263	5.599	8.862 (%25,20)

### 3. Ikerketaren balorazio orokorra

Ikerketa honetatik ondorengo ondorio nagusiak atera ditugu, iazko emaitzekin alderatu ondoren:

1. Aurtengo datuak bat datoz iazkoekin eta egindako irakurketarekin: 10 ikasletatik 8 gai dira euskaraz lan egiteko, 6k hala egin nahi du eta 4 izango lirateke praktikak euskaraz egin dituztenak.
2. 10etik 8k uste du gai dela euskaraz lan egiteko, iaz bezala (iaz %78 eta aurten %84, nahiz eta ehunekotan gutxiago izan D ereduko ikasleak, iaz %53 eta aurten %51,3).
3. %55k egin nahi du lan euskaraz, iaz ateratako datu bera da, baina aurtengoan handiagoa da koska, 29 puntukoa.
4. Instruktoarekin euskaraz aritu dela adierazi du ikasleen %35ak, iaz %37,4ak.
5. Korrelazioa dago eskola eredia eta praktikak euskaraz egitearekin, baina beste ereduak korrelazio handiagoa dute gaztelaniaz egitearekin, nahiz eta instruktorea edo lankideak eta ikaslea euskalduna izan.
6. Badira 197 instruktore euskaldunak izanik ere D ereduko ikasleekin gaztelaniaz egin dutenak haien lana.
7. Bada korrelaziorik enpresaren tamaina eta euskaraz egitearen artean. Aldagaiak ez dira independenteak, nahiz eta iaz ezin izan genuen hori ikustarazi.

Horretaz gain,

8. Harrera ahoz %40,2 egin dira euskaraz aurten (%47,7 iaz). Bi eletan egindakoak gehituz gero, aurten %55,7 eta iaz %49,7.
9. Harrerako dokumentazioa %47,7k jaso du euskaraz edo bi eletan aurten. Iaz, %39.






## 4. Jasotako daturik esanguratsuenak

Jarraian ditugu puntuaz puntu jasotako daturik esanguratsuenak.

### EZAUGARRI TEKNIKOAK

**1.457** galdetegi erantzun dituzte **39** ikastetxetako ikasleek. Ikastetxe horiek Ikaslan, Hetel, Aice-izea eta Ikastolen Elkarteko partaideak dira. Gipuzkoako ikastetxeen **%59ak** eta ikasleen **%21,6ak** parte hartu du. Ikastetxeak 23 herritan daude kokatuta, Gipuzkoako udalerrien 1/3. Eskualde guztiak ordezkatuta.






Parte hartzaileen %51,3k D ereduan ikasi du (747 ikasle), %13,1k B ereduan (191) eta %2,6 Eleanitzean. Azken 2 eredu horietan ere du presentzia euskarak.

%33,0 ari da A ereduan, 481 ikasle, eta ez du ikasgaririk euskaraz, nahiz eta Erkidegoan ofiziala den hizkuntzetako bat izan eta Gipuzkoako herritarren %53,2 elebiduna eta %22,7 ia elebiduna den herrialde batean (eta %23,9 erdaldun elebakarra). (Eustat 2011)

Eustaten arabera, 2013-14ko aurreratutako datuak hauexek dira: A ereduan, %50; B ereduan, %4; D ereduan, %45; X ereduan, %0

Hemen ere gora-behera handiak daude familiarik familiara, eskolatik eskolara. Hortik letorke galdetegiko banaketa eta populazioko banaketaren arteko aldea.




Parte hartzaileen %30,6 emakumezkoak dira, eta gehiengoa, %68,8 gizonezkoak dira.

%0,6 Beste bat aukera hautatu du.


Gipuzkoako goi mailako LHko ikasleen artean %38 emakumezkoak dira eta %62 gizonezkoak (Eustat, 2012-13).

Hala ere, familien artean gora-behera handiak daude, batzuk emakume askorekin (administrazioa, %69; osasuna, %77; zerbitzu soziokulturalak, %85; hiruen artean 2.019 ikasle bi generoetan) eta beste batzuk gizon askorekin (fabrikazio mekanikoa, %89; informatika %84; produkzioa, instalazioa eta mantenua, %96; guztira 1.901). Ikusi egin behar zeintzuk izan diren galdetegia bete dutenak oreka estatistikoa dagoen aztertzeko.



Ikasleen %69,8k 50 langiletik beherako enpresetan egin dituzte praktikak ( %37,5k enpresa oso txikitik egin dute).


%12,6k enpresa ertainetan, eta %18,5k handietan.



Ikasleen %90,5k Gipuzkoan kokatuta dauden enpresetan egin dituzte praktikak.

Kokapena adierazten ez duten 31 erantzunak, eskola batzuek enpresen izenak eta gorde dituztelako izan daiteke.

**DATUAK**



Harrerako elkarrizketen %40,2 egin dira euskaraz eta %15,5 euskaraz eta gaztelaniaz.


Gogoratu ikasleen %51,3 D eredukoak direla eta beste %15,7 euskaraz ere ikasten dutela, eredu eleanitza eta mistoan.

Jakina, harreragile euskaldun batzuk A ereduan ikasi dutenekin egongo ziren eta harreragile erdaldunak D ereduan ikasi dutenekin.

D ereduko 212 ikaslek adierazi dute gaztelaniaz bakarrik egin dietela harrera. 12 pertsonak ez dute erantzun, eta beste hizkuntza bat aukeratu dute.

A eredukoaren arten 83k adierazi dute euskaraz egin dietela harrera. Beste 78k diote euskaraz eta gaztelaniaz egin izan dela.

Euskaraz lan egiteko gai ez diren ikasleak 233 dira galdetutakoen artean (gero ikusiko da grafikoa), baina 620k adierazi dute erdaraz bakarrik egin dietela harrera.




Dokumentazioa ikasleen ia erdi batek, %47,7, euskaraz behintzat jaso zuen.

D eredua ikasi duten 233 ikaslek adierazi dute gaztelaniaz bakarrik jaso dutela dokumentazioa, hau da, D ereduko ikasleen %31,1k.

Oharretan ikus daiteke badela talde esanguratsua ez duena dokumentaziorik jaso aurkezpenean.

Harrera egiterakoan erabilitako hizkuntzari eta dokumentazioari buruzko 45 ohar jaso ditugu. Horietatik 10k aipatu dute ingelesez zegoen dokumentazioa ere jaso dutela (“Berez euskaraz baina garapeneko arloa denez dokumentazio asko ingelesez dago eta horregatik euskaraz aparte ingelesez egongo da dokumentazioa”, “La mayoría de la documentación la he recibido en Euskera y Castellano. Pero también he tenido que leer manuales en Ingles”), eta beste 7k ez dutela batere dokumentaziorik jaso (“Harrera egitean dokumentaziorik ez zidaten eman”). Ikasle batek aipatu du bere enpresak euskara plana zuela, baina bera A ereduakoa da (“La empresa en la que he realizado las practicas tiene un grupo dedicado a la promoción del euskera en la empresa. Se traducen casi toda la documentación al euskera, manuales, instrucciones, carteles, informativos...”).


Beste 4 lagunek esperientzia baloratu dute. 3ri pozik daudela antzematen zaie (“Oso ongi dena, oso gustura egon naiz” eta “dena oso ondo eta oso ondo tratatu naute”), eta laugarrenaren iritzia ez dago horren argi: “lan asko”.



Erantzunen arabera instruktoreen %69,6 euskaldunak dira, bi heren.


Instruktorearekin nagusiki euskaraz (%51-100) %46,7ak egin du eta Euskaraz ia beti %35ek.

Buruz buruko harreman pertsonala denez, hizkuntza batean edo beste batean egiten da batez ere (%35 euskaraz batez ere, %39,1 gazteleraz batez ere), gutxiagotan hizkuntza bat baino gehiagotan (%22,1)



la beti euskaraz, %27,8k, ia beti gazteleraz %30,5ek eta nagusiki euskaraz, erdi batek egiten du, %49,4k


Jende gehiagoren artean hizkuntza gehiago erabili ohi da, noski. Aurreko grafikotik hona nabaritu egiten da hori.




Hamarretik batek, %13,5ek, egiten du batez ere euskaraz (%76-100). Nagusiki euskaraz, heren batek, %34,3k.

Ez dakit erantzun dutenen kopuruak gora egin du, askok ez dutelako harremanik bezero eta hornitzaileekin. Hala adierazi dute oharretan, esate baterako: "Ez dut tratatu zuzenik bezero edota hornitzaileekin".

Pertsonen atal honetako erantzun kualitatiboetan 56 ohar daude, eta denetik islatzen da. 11k adierazi dute ez dutela harremanik bezero edo hornitzaileekin ("Ez dut tratatu zuzenik bezero edota hornitzaileekin"). Beste 9k aipatu dute bezeroetako asko kanpokoak zirela, eta, ondorioz, ez zirela haiekin euskaraz aritzen ("Bezero" gehienak atzerritarrak direnez, ez dakite euskaraz", "Como es una empresa internacional hay muchos clientes con los que se habla sobre todo en ingles, francés, alemán y también mucho portugués", "se utilizaba mas el ingles que el euskera al atender clientes"). 10k adierazi dute ez dela euskaraz hitz egiten ("Enpresa honetan ez da euskaraz hitz egiten"), eta beste 7k euskara zela enpresan gehien erabiltzen den edo lehenesten den hizkuntza ("Langile gehienek euskaraz egiten duten nahiz eta ez dakienik ere baden. Bezeroei dagokionez, askok gaztelerara jotzeko ohitura dute. Hala ere, euskara da nagusi", "Pertsonen (hartzailearen) arabera, baina normalean euskara lehenetsiz", "Lo habitual es que los correos electrónicos internos entre empleado sean en euskera. En general la mayoría de los empleados son del Goierri y hablan en euskera. El idioma que mas se utiliza en la empresa es el euskera").



Parte hartzaileen %32k adierazi du laneko dokumentazioa batez ere euskaraz zegoela, eta %46,1k dena edo ia dena gaztelaniaz.




Bostetik batek betetzen du ia beti euskaraz dagokion dokumentazioa, %22,4k. Gehienetan euskaraz, heren batek, %31,8k.

la beti gaztelaniaz %48,9k.

Dokumentazioari buruzko 38 ohar jaso dira. 14k diote dokumentazioa gaztelaniaz bakarrik zegoela (“No se hace nada en euskera”, “Dokumentazioa erdararaz bete beharra izan dut nik eramaten nituen arloak Madrilan, Galizian, Kantabrian... zeudelako kokatuta.”), 4k ingelesa eta alemana ere aipatzen dituzte. 2k aipatu dute bi eletan zegoela dena, eta 1k guztia euskaraz zegoela.

Pertsona batek aipatu du ia dokumentazio guztia hainbat hizkuntzatan zegoela, baina katalogoa ez zegoela euskaraz: “Casi toda la información interna está en varios idiomas (euskera, castellano, inglés, francés, alemán... pero por ejemplo, no hay catálogos en euskera (castellano, inglés, francés, alemán...no en euskera).”

Beste batek aipatu du zenbakiak baino ez zituela erabiltzen: “Bete ditudan dokumentazio gehienak numeroen bitartez bete ditut.”




Enpresen laurdenean dago errotulazio guztia euskaraz, %24,8 eta %35k adierazi du gaztelaniaz dela.

Errotulazioari buruzko 27 ohar jaso ditugu. 11k diote euskaraz eta gaztelaniaz daudela (“Bi hizkuntzatan daude; bai euskaraz, baita gaztelaniaz ere”), beste 3k diote badirela batzuk euskaraz, baina ez maila berean (“Guztiak agian ez baina gehienak behintzat bi hizkuntzatan daudela esango nuke”, “bietatik baina gehiengoa gazteleraz” eta “euskaraz idatzitako kartel batzuk daude baina oso gutxi”).

5k adierazi dute kartelak gaztelaniaz bakarrik zeudela (“Los carteles estaban escritos en castellano ya que la mayoría de los clientes no son vascos”).

2k aipatu dute kartelak ingelesez zeudela.


2k aipatu dute kartel gutxi edo kartelik ez zegoela enpresan.



D ereduok %51,3 baziren ere, euskaraz lan egiteko gai direla esaten dutenak askoz gehiago dira, %84.

Oso gutxi dira gai ez direla adierazten dutenak, %8,6.

Gai 4/5 baldin badira ere, harreran 2/5 hartuak izan dira euskaraz, gai direnen 1/2, instruktorearekin 1/3k egiten du euskaraz ia beti eta lankideekin 1/4k.



%84k dio gai euskaraz lan egiteko, baina %55,3 besterik ez dira euskaraz lan egin nahi dutela esaten dutenak. Iazko kopuru bera.

Ez dutela euskaraz lan egin nahi, aurten %11,1 dira adierazi dutenak eta iaz %12,8.

Euskaraz lan egiteko gai ez direla esango dutenak %8,6 dira, beraz nahi ez dutenak horietatik dira nagusiki.



489 ikaslek (%33,6) ez dakiela edo berdin zaiola erantzun du. Horietatik 383k euskaraz lan egiteko gai direla adierazi dute, eta horietatik 153 D ereduan ikasten ari direla. Beraz, D ereduan ikasten ari direla adierazi duten 747 ikasleetatik %20,4 ez daki euskaraz lan egitea nahiago duen edo berdin zaio (1/5).

50 ohar jaso ditugu atal honetan. 21k adierazi dute euskaraz lan egin nahiko luketela, batzuk ama-hizkuntza hori dutela (“Gaztelera moldatzen naiz eta lan egiteko gai naiz, baina Euskara nire ama hizkuntza da eta erraztasun handiagoa du”, “Nik aukeran nahiago dut euskaraz, baina inguruak baldintzatzen du bere erabilera”, “Nire kasuan praktikak atzerrian izanda Euskararen erabilera ez da izan. Baina argi dago Euskal Herrian aldatu beharreko gauza bat dela. Enpresa askoetan euskararen erabilera lotsagarria da, eta euskaraz dakigunok erdarara pasa beharra dugu, haiek euskaraz ez dakitelako”, “Euskaraz edo gaztelaniaz lan egitea ez zait inporta. Baina nahiago nuke euskara gehiago erabiltzea”). Kasu batzuetan, zailtasunak gainditzeko prest azaldu dira: “Lo intentaría, aunque aun me resulta difícil”, “Entiendo muy bien el euskera pero a la hora de hablar no me expreso muy bien, ya que normalmente en mi entorno estoy acostumbrada a hablar en Castellano. Pero creo que hablando en euskera, poco a poco mejoraría más”, “Baino batzuetan zailtasunak ditut. Euskara ez da nire ama hizkuntza, euskaltegian ikasi dut. Baina saiatzen naiz euskaraz egiten nire lana”.

1k berdin zaiola esan du (“Me da igual”), eta 2k nahiago lukete gaztelaniaz (“Me da igual, pero mejor castellano”, “Si se podría trabajar en castellano, mucho mejor”) eta bat euskaraz egitearen kontra dago (“En la empresa no he necesitado hablar en euskera para nada y no estoy a favor de fomentar el Euskera. Y se escribe OPINIONES y no OPNIONES”).

8 pertsonak adierazi dute ez dakitela euskara (“No se euskera”, “Hace muchos años que deje de estudiarlo, lo entiendo en su gran mayoría pero me cuesta hablarlo”), eta horietatik 3k ikasteko prest egongo liratekeela (“no tengo idea de euskera, pero estoy interesado en aprenderlo”, “Me gustaría aprender euskera para trabaja”).

1k aipatu du ingelesez ere gustura arituko litzatekeela (“Eskola ingeles batean ere gustura egingo nuke lan”).

## 5. Aldagaien arteko harremanen analisia

Oharra: Gorriz, proportzionalki espero zitezkeenak, urdinez, izandakoak. Pearsonen indizean gorriz ageri dena, aldagaien arteko independentzia-muga da: hortik behera emango balu indizeak, aldagai biak independenteak izango ziren; hortik gora ematen badu, elkarren dependentzian dira.

### Eredua eta harrera euskaraz

Eredua eta harrerako hizkuntza ez dira independenteak, oso erlazionaturik daude. Hala ere, badira D ereduan ikasi eta erdaraz hartu dituzten 320 ikasle, ia D ereduko ikasleen erdia. Gogoratu behar da beste ereduetan ikasi duten gehienek euskaraz lan egiteko gai direla esan dutela, beraz euskaraz hartuak izan zitezkeen ere.

		Harrera ahoz	
		Euskaraz	Bestez
Eredua	D	57% (427 / 300)	43% (320 / 447)
	Beste bat	22% (159 / 286)	78% (551 / 424)
		X2 Pearson= 183 (3,84) p=0.000 a.g.=1	

### Harreragilearen hizkuntza eta harrera euskaraz

Jakina, bi aldagaiak elkarren erlazioan dira. Esan berri dugu ikasleen %84 direla euskaraz lan egiteko gai, beraz, harreragilea euskalduna denean, euskaraz aritzea espero zitekeen. Horrela gertatzen da, baina oraindik ere badago zer hobeturik. Izan ere harreragile euskaldunetatik 469 erdaraz aritu dira batez ere.

Oharra: Harreragileak gaztelerez jakin baina euskaraz hartu dituen 29 erantzuleek, baliteke galdera ez ondo ulertzea eta beren erantzuna "(euskaraz gain) gaztelera" izatea.

		Harrera ahoz	
		Euskaraz	Bestez
Harreragileak dakiena	Euskara	54% (545 / 408)	46% (469 / 606)
	Gaztelania	8% (29 / 155)	92% (357 / 231)
	Ez daki	21% (12 / 23)	79% (45 / 34)
		X2 Pearson= 258 (5,99) p=0.000 a.g.=2	

### Eredua eta Instruktoareekin euskaraz

Eredua eta instruktorearekin egiten den hizkuntza ere erlazionaturik daude, ez dira independenteak. Erlazio handia dago. Esate baterako, proportzionalki D ereduko 262 inkestatu aritu behar ziren %76-100 euskaraz, baina %39 gehiago ari dira, 364 guztira. Beste muturrean, beste eredu-tako 278 lagun aritu beharko ziren, espero zitezkeen proportzioei bagagozkie, erdaraz (%0-25), baina %30 gehiago dira, 361 guztira.

		Instruktoareekin euskaraz				
		%0-25	%26-50	%51-75	%76-100	Ez dakit
Eredua	D	28% (209 / 292)	8% (63 / 77)	13% (94 / 88)	49% (364 / 262)	2% (17 / 28)
	Beste bat	51% (361 / 278)	12% (88 / 74)	11% (77 / 83)	21% (146 / 249)	5% (38 / 27)
		X2 Pearson= 147 (9,49) p=0.000 a.g.=4				

### Generoa eta Instruktoareekin euskaraz

Generoa eta instruktorearekin erabilitako hizkuntza ez dira independenteak. Erlazionaturik daude, izan ere Pearsonen indizea handiagoa baita 4 askatasun gradurekin zegokiona baino. Emakumezkoek gehiago egiten dute euskaraz espero zitezkeena baino eta gizonezkoek gutxiago.

		Instruktoareekin euskaraz				
		%0-25	%26-50	%51-75	%76-100	Ez dakit
Generoa	Emakume	37% (166 / 174)	7% (33 / 47)	11% (47 / 52)	42% (187 / 156)	3% (13 / 17)
	Gizon	40% (399 / 391)	12% (118 / 105)	12% (123 / 118)	32% (320 / 351)	4% (42 / 38)
		X2 Pearson= 17,12 (9,49) p=0.002 a.g.=4				

### Eredua eta Euskaraz lan egin nahi

Eredu eleanitza eta mistoan ikasi dutenek ez dute joera berezirik. A eta D ereduetan ikasi dutenek ordea joera nabarmena erakusten dute, alderantzizko joera hain zuzen ere. D eredukoak euskaraz lan egiteko gogoagatik nabarmentzen dira eta A eredukoak aldiz, ez nahi izateagatik.

A ereduko asko indefinizioan dira (222 ez dakit, proportzionalki zegokiena baino gehiago), eta holako askoz gutxiago dira D ereduan (177 ez dakit, proportzionalki zegokiena baino gutxiago).

		Eredua			
		A	D	Eleanitza	Mistoa / B
Euskaraz lan egin nahi	Bai	18% (145 / 266)	68% (546 / 413)	3% (21 / 21)	12% (94 / 106)
	Ez	70% (114 / 54)	15% (24 / 83)	4% (6 / 4)	11% (18 / 21)
	Ez dakit	45% (222 / 161)	36% (177 / 251)	2% (11 / 13)	16% (79 / 64)
		X2 Pearson= 259 (12,59) p=0.000 a.g.=6			

### Generoa eta Euskaraz lan egin nahi

Lotura generoa eta euskaraz lan egin nahiarekin esanguratsua da. Emakumezkoek gehiago adierazten dute gogo hori eta gizonezkoek gutxiago.

		Generoa	
		Emakumezkoa	Gizonezkoa
Euskaraz lan egin	Bai	34% (272 / 248)	66% (530 / 555)
	Ez	31% (50 / 50)	69% (112 / 112)
	Ez dakit	26% (124 / 149)	74% (357 / 333)
		X2 Pearson= 9,32 (5,99) p=0.009 a.g.=2	

### Enpresaren tamaina eta Instruktoareekin euskaraz

Esanguratsua da enpresaren tamaina eta instruktoareekin erabiltzen den hizkuntza, ez dira independenteak. Enpresa handietara joanez gero, ikasleak bermatuago du euskaraz aritu ahal izatea.

Berdin gertatzen da lankideekiko harremanean, daturik erakusten ez badut ere.

Harrera zein hizkuntzatan egiten den eta enpresaren tamaina ordea, independenteak dira, ez dago erlaziorik.

		Instruktoareekin euskaraz				
		%0-25	%26-50	%51-75	%76-100	Ez dakit
Enpresaren langile kopurua	1-10	45% (248 / 214)	10% (53 / 57)	12% (63 / 64)	30% (166 / 191)	3% (17 / 21)
	11-50	36% (166 / 178)	12% (53 / 47)	12% (55 / 54)	34% (156 / 160)	6% (26 / 17)
	51-100	32% (59 / 72)	11% (20 / 19)	12% (22 / 22)	43% (79 / 64)	2% (4 / 7)
	>100	36% (97 / 106)	9% (25 / 28)	11% (31 / 32)	40% (109 / 95)	3% (8 / 10)
		X2 Pearson= 26,55 (21,03) p=0.009 a.g.=12				

### Harrera euskaraz eta Instruktoareekin euskaraz

Harrera zein hizkuntzatan egiten den, horretan egingo da probabilitate oso handiz instruktoareekin. Baliteke izatea instruktoareak berak egiten duelako harrera edo, baita ere, enpresaren izaerak (hizkuntza nagusi bat izateak) eragitea.


		Instruktoareekin euskaraz				
		%0-25	%26-50	%51-75	%76-100	Ez dakit
Harrera ahoz	Euskara	8% (48 / 230)	5% (28 / 61)	12% (72 / 68)	72% (422/207)	3% (16 / 20)
	Eus-Gazt	26% (59 / 89)	19% (44 / 24)	29% (65 / 26)	24% (55 / 80)	1% (3 / 8)
	Gaztelera	73% (454 / 243)	12% (77 / 65)	5% (30 / 72)	5% (28 / 219)	5% (31 / 22)
		X2 Pearson= 863 (15,51) p=0.000 a.g.=8				

### Elebakartasuna inguruaren arabera

Alde txikia dago "ia beti euskaraz", %76-100, eta "ia beti gaztelera" aritzen direnen artean: % 3 puntuko aldea. Hala ere bezero-hornitzaileekin eta dokumentazioa nola betetzen den, nabarmen eremu erdaldunak dira.


Gipuzkoan, LHko ikasleen %8k egiten du lan euskaraz (%76-100 eremu guztietan), eta D ereduaren artean %14 dira hori egiten dutenak. Beti erdaraz, berriz, %26k, lautik batek, ikasle guztiak aintzat harturik eta %13k D ereduaren artean.

D ereduaren artean %3k euskaraz lan egiteko gai ez dela dio eta %94k baietz. Hala ere, lautik hiruk, ez besterik (%73k), euskaraz lan egin nahi duela dio, gai izatetik gogoia adieraztera %21eko *higadura* dago.




### Euskararen erabilera intentsiboa

Gipuzkoan, LHko ikasleen %8k egiten du lan euskaraz (%76-100 eremu guztietan), eta D eredukoaren artean %14 dira hori egiten dutenak. Beti erdaraz, berriz, %26k, lautik batek, ikasle guztiak aintzat harturik eta %13k D eredukoaren artean.



### Gaitasuna eta gogoia D eredukoaren artean

D eredukoaren artean %3k euskaraz lan egiteko gai ez dela dio eta %94k baietz. Hala ere, lautik hiruk, ez besterik (%73k), euskaraz lan egin nahi duela dio, gai izatetik gogoia adieraztera %21eko *higadura* dago.




## 6. Ikerketaren ondorioak

### 2014 Ikerketaren ONDORIOAK

Jarraian jaso ditugu jasotako datuen irakurketatik atera ditugun ondorioak. Horiek gorago azalduko datuetatik eta aldagaien arteko azterketatik eratorriak dira.

D eredukoak %51,3 baziren ere, euskaraz lan egiteko gai direla esaten dutenak askoz gehiago dira, %84. Oso gutxi dira gai ez direla adierazten dutenak, %8,6.

Gai 4/5 baldin badira ere, harreran 2/5 hartuak izan dira euskaraz, gai direnen erdia. Instruktoareekin 1/3k egiten du euskaraz ia beti eta lankideekin 1/4k. Azkenik, dokumentazioa euskaraz bete, 1/5k egiten du.



D eredukoak	%51
Gai euskaraz lan egiteko	%84
Euskaraz lan egin nahi	%55
Harreran euskaraz <sup>1</sup>	%40
Instruktoareekin euskaraz <sup>1</sup>	%35
Lankideekin euskaraz <sup>1</sup>	%28
Dokumentazioa bete euskaraz <sup>1</sup>	%22
Bezero-hornitzaileekin eusk <sup>1</sup>	%14

(1) %76-100 euskaraz

**Generoaren eragina:** Emakumezkoek gehiago egiten dute euskaraz gizonezkoek baino. Gainera, euskaraz lan egiteko gogo handiagoa adierazten dute.

**Eredua eta euskaraz lan egiteko gogo:** D eredukoak euskaraz lan egiteko gogoagatik nabarmentzen dira eta A eredukoak aldiz, ez nahi izateagatik.

**Harreragile euskaldunak:** Harreragile euskaldunetatik 469 erdaraz aritu dira batez ere.

**Enpresaren tamainaz:** Enpresa handietara joanez gero, ikasleak bermatuago du euskaraz aritu ahal izatea instruktoareekin. Berdin gertatzen da lankideekin.

**Hizkuntza-erabileraren intentsitatea:** Euskaraz erabat %8k egiten du (%14 D eredukoaren artean). Erdaraz erabat, %26k (D eredukoaren artean %13k).

## 7. Lanari euskaraz ekiteko bide-orria

# Lanari euskaraz ekiteko bide-orria

### SARRERA

2014ko urriaren 2an, 30+10 Mintegia burutu zen, 9. urtez jarraian, Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuan (IMH). Bertan, 120 pertsona inguru elkartu ziren, Gehitu izeneko ikerketaren emaitzak entzun eta Lanbide Heziketako (hemendik aurrera LH) ikasleek Lantokiko Prestakuntza modulua (hemendik aurrera LP) euskaraz egin ahal izateko neurriak aztertzeko. Haien artean izan genituen, gai honetan zeresana duten eragile nagusien ordezkariak: Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta bestelako herri-erakundeak, Hezkuntza saila eta Lanbide Heziketako Sailburuordetza, Berritzeguneak, ikastetxeak, enpresak eta enpresa elkarteak, hizkuntza-aholkularitzak, sindikatuak, alderdi politikoak... Artikulu honek publiko egin nahi ditu bertan jasotako ideiarik garrantzitsuenak, eta aurrera egiteko bide-orrirako ideia nagusiak proposatu.

Gaske askok lanarekin duten lehen harremana ikasle garaitan izaten da: praktikak egiten dituztenean. LHko ikasleen kasuan, LP modulua gauzatzean. Modulu hori egitea derrigorrezkoa da, ikastetxean garatutako prestakuntza-prozesuetan ikasleek bereganatu dituzten ezagutza, trebetasun eta jarrerak eguneroko praktikan erabiltzeko ezinbestekoa. Beraz, euskaraz egin beharrekoa, D ereduiko ikasleen kasuan behintzat.

Errealitateak, aldiz, hori ez dela beti hala izaten erakusten digu. IMH, Laneki eta Ahize-AEK hizkuntza aholkularitzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak lagunduta, egin duten Gehitu ikerketak agerian utzi du Gipuzkoan 10 ikasletatik 8 gai direla euskaraz lan egiteko, 6k hala egin nahiko luketela eta 4k egiten dituztela praktikak euskaraz. Izan ere, Ikaslan, Hetel, Izea eta Ikastolen elkarteko 39 ikastetxetako 1.457 ikasle emandako erantzunen arabera, D ereduiko 747 ikasletatik 289k gaztelaniaz nagusiki egin dituzte praktikak. 3 instruktoretatik 2 euskaraz aritzeko gai badira ere (1.014, instruktoreen %69,5), kasu batzuetan, euskara ez zekiten instruktoreak egokitu zaizkie, eta, beste kasu batzuetan, euskal hiztuna izanik ere, gaztelaniaz egin dute (197 kasu, instruktore euskaldunen %19,4).

Argi da, neurri batean, eragileek haien kasa (Oarsoaldea, Buruntzaldea, Elgoibarko Udala...), aurrerapauso garrantzitsuak eman badituzte ere, ikasleen prestakuntzan horrenbesteko garrantzia duen atal honetan, hutsune garrantzitsuak ematen ari direla, eta ezin zaiola denbora gehiagoz iskin egin gaiari.

Hori dela eta, 30+10 Mintegira etorritakoak taldeka jarri eta eragile-taldearen arabera egin beharrekoak proposatzea eskatu zitzaion. 300 proposamen inguru jaso ziren. Jarraian dugu han bildutakoaren laburpena, eragilez eragile.

## ***Lanari euskaraz egiteko bide-orria***

### **PROPOSAMENAK**

#### **Eusko Jaurlaritzari**

1. **Arautu eta sistematizatu.** Lanbide Heziketako zikloen Lantokiko Prestakuntza modulua egiteko modua arautzen duen dekretuan hizkuntza irizpideak txertatu, edo xedapenen bitartez garatu. Hau da, LH ikasketak D eremuan egin duten ikasleek LP euskaraz egin behar dutela xedatu, jarraipen sistematikoa egin eta araudia betearazi. Hori gauzatzeko, batetik, gaiari buruzko hitzaldi bat antola daiteke Legebiltzarrean, eta, bestetik, ikastetxeak elkar daitezke garapen mailaren arabera eta LP euskaraz egitea sistematizatzeko egitasmoa jarri martxan.
2. **Eredugarri, koherente eta koordinatuta aritu.** Jaurlaritzak eta enpresa publikoek eredugarri jokatu. Langileak kontratatzeke erabiltzen dituzten hizkuntza irizpideei jarraituz, ikasle elebidunak hartu praktikak egiteko, dokumentazioa euskaraz bete... Sailen arteko koordinazioa: irizpideak bateratu Hezkuntza, Enplegu eta Gizarte Gaietako, eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailen artean.
3. **Sustatu.** Pertzepzio berri bat zabaltzen lagundu eragileengan. Baliabidek jarri kontzientziario hitzaldiak emateko ikastetxeetan, irakasle, tutore eta LP arduradunei; eta, enpresetan, instruktore eta Giza baliabideetako langileei.
4. **Errekonozimendua eta pizgarriak eskaini.** Errekonozimendua enpresa eta ikasleei prestigiatzeko. Sariak, diru-laguntza lerroak eta baliabideak eskaini enpresei ikasleek praktikak euskaraz egiteko presta daitezke: LanHitz programan txertatu, lerro berriak ireki, dokumentu ereduak eskaini...

#### **Ikastetxeei**

5. **Helburua finkatu eta eredugarri jokatu.** Ikastetxeko hizkuntza proiektuan LP-ren txertaketa eta helburuen finkatze zehatza egitea. Lagungarri litzateke LP arduraduna normalkuntza batzordeko kidea izatea, ikastetxeko langile guztiak euskara erabiltzea hizkuntza nagusi bezala eta abar.
6. **Sistematizatu.** Enpresen hizkuntza-egoera ezagutu eta eskaera bideratu instruktorea euskalduna izateko. Hitzarmenetan praktikak euskaraz izango direla jaso eta ikastetxe-enpresa arteko harremana euskaraz izatea sustatu (tutoreen bilerak, dokumentuak, harremanak...). LP euskaraz egiteko aukera eskaintzen dutenen zerrenda osatu, eta kontuan izan ikasleak banatzerako orduan.

#### **Enpresei eta Enpresa-elkarteei**

7. **Enpresak gaiarekiko sentiberatu.** Euskara plana duten enpresetan gaia txertatu. Gainerakoentzat, euskara sustatzeko kanpaina periodikoak egin bazkideen artean, enpresek duten erantzukizunaz jabetzeko, eta, hezkuntzarekin elkarlanean, baldintzak sortzeko protokolo bat definitu. LP-z baliatzeko, enpresek gutxieneko hizkuntza irizpide komunak zaintzea. Enpresa elkarteko aholku-gidetan gaia txertatu eta garatzeko tresnak eskaini enpresei.
8. **Aukera bermatu eta eskaini.** Protokoloa martxan jarri: instruktore euskaldunak lehenetsi, ikasleari harrera euskaraz egin eta hizkuntza kudeaketari buruz duten jarrera azaldu, tutorearekin bilerak euskaraz egin, paisaia linguistikoa eta dokumenturik erabilienak euskaratu, lan zirkuitu euskaldunak zehaztu...



# Lanari euskaraz ekiteko bide-orria

## PROPOSAMENAK

### Berritzeguneei

9. **Koordinazioa eta zubi-lana egin.** Berritzegunea eta Laneki norabide berdinean jarri. Ikastetxeen eta eskualdeen arteko elkarlana sustatu. Ulibarri programan LP-ri dagokion tokia egin."LP euskaraz" proiektuak euren agendetan sartu, foroa sortu, sistematizatu eta jarraipena egiteko. Lanbide Heziketarako ikastetxeen arteko berariazko mintegia antolatu, praktika onak dituzten Lanbide Heziketako ikastetxeak atzeman (baita nazioarteko esperientzietatik ere) eta horren berri eman. Hizkuntza normalizazioko teknikariei ez ezik, baita LP arduradunei eta LOP irakasleei ere aholkularitza eman. Sentiberatzeko hitzaldiak sustatu.

### Erakunde publikoei (Aldundi, Udal eta Garapen agentziei)

10. **Eredugarritasuna.** Erakunde publikoetan egiten diren praktikak euskaraz egitea.
11. **Babesa eta sustapena.** Babesa eta "prestigiatze" lana, bai ikastetxeetan, bai enpresetan. Sareak eratu udalak + garapen agentziak + ikastetxeak + lantegiak, euskara planak eta laguntzak bultzatzeko eta jarraipena egiteko. Elkarlana eta konpromisoa sustatu.
12. **Saritzeko bideak jarri.** Enpresei hobariak, praktika onei sariak edota behar diren hobekuntzak egiteko laguntzak eskaini LP euskaraz eskaintzen duten enpresei.

### Besteei (Sindikatuak, Alderdi politikoak...)

13. **Baliabideak eta zaintza.** Programetan sartu lanaren euskalduntzea. Sindikatuek enpresa hitzarmenetan landu eta alderdiek adostasuna lortu baliabideak bermatzeko. Lehenengo proposamenean aipatu bezala, alderdiek hitzaldi bat antola dezakete Legebiltzarrean edo/eta gaia aztertu herrialdeetako Batzar Orokorretan. Zaindu Administrazioek eredugarri jardutea, eskubideak bermatzeko eta legea eta hartutako konpromisoak betetzeko. Komunikabideetan gaiari lekua egin (Bat aldizkaria, Berria egunkaria...).

Artikulua amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu mintegiaren antolaketan lagundu duten guztiei. Besteak beste, Eusko Jurlaritzari, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Elgoibarko Udalari, LP eta Hizkuntza Normalkuntzako koordinatzaileei, hizlari aritu direnei eta mintegiko partaide guztiei.

1 Ez da aukera bakarra. Lanbide Heziketan bertan, Hezibi eta Duala eskaintzak ditugu. Kasu horietan ikasleek praktikan baino denbora gehiago ematen dute enpresetan. Horretaz gain, ingeniariaritza eta unibertsitateko ikasleak ditugu. Horien praktikak ere garrantzitsuak izan daitezke.

## 8. Eranskinak: Galdetegiak

Galdetegi betetzeko oharrak:

Lanbide Heziketako ikasleok ENPRESETAN egiten dituzuen Lantokiko Prestakuntzan hizkuntzaren erabilera zein den neurtu nahi dugu. Horretarako zuen laguntza nahitaezkoa zaigu, zuek ikasleok zaretelako egoera bertatik bertara ezagutzen duzuenok. Hortaz, galdetegi betetzeko 5 minutu eskatzen dizkizugu.

**Praktikak enpresa batean baino gehiagotan egin badituzu, enpresa bakoitzeko galdetegi bana bete.**

Erantzun guztiak egokiak dira, ez daude zuzenak edo hobekak. Benetan ikusi eta pentsatzen duzuna da baliagarriena.

Datua ez badakizu, gogoratu ez baduzu, edo, zure kasuan, galdera egokia ez bada, "ez dakit" erantzuna hautatu.

4 galdera mota dituzu:

- Hizkuntzak aukeratzekoak: Erantzuneko laukitxoak () dute. Dagokion hizkuntza aukeratu, eta ixia idatzi laukitxoaren barruan (). Bat baino gehiago izan daitezke.
- Ehuneko bitartez adieraztekoak: Kopuru bakoitzaren ondoan, laukitxoak () dute. Ixia idatzi errealitatek gertuena dagoen ehuneko duen laukitxoaren barruan ().
- Bai/Ez erantzutekoak: Erantzuneko laukitxoak () dute. Ixia idatzi laukitxoaren barruan ().
- Oharrak/Azalpenak eta galdera irekiak (izena...): Norberak idazteko dagokiona.

**Galdetegi honekin jasotako datuak GEHITU proiektuaren barruan garatuko diren jardueretarako bakarrik erabiliko dira.**

### 1. DATU OROKORRAK:

1.1. **Ikastetxea:**

1.2. **Zikloa** (izen osoa idatzi):

1.3. **Eredua:**  D  Eleanitza  Mistoa / B  A

1.4. **Ikaslearen generoa:**  Emakumezkoa  Gizonezkoa  Beste bat

1.5. **Enpresa:** **Kodea:**   **Enpresaren izenaren lehen bi hizkiak:**   **Zure telefonoaren azken bi zenbakiak:**

1.6. **Herria** (enpresa non kokatuta dagoen):

1.7. **Langile kopurua:** 1-10  11-50  51-100  100 <

### 2. HARRERARI BURUZKO GALDERAK:

	euskara	gaztelania	beste	ez dakit
2.1. <b>Harrera</b> egin zaizunean, <b>ahozko azalpenak</b> zein hizkuntzatan izan dira (erakundea aurkeztu, prebentzioa...)?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2.2. <b>Harrera</b> egiteko erabili den <b>dokumentazioa</b> zein hizkuntzatan eskaini dizute? (Harrera eskuliburua, Segurtasuna eta kalitate arauak, katalogoak...)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2.3. Oharrak/Azalpenak				

### 3. PERTSONEI BURUZKO GALDERAK:

	euskara	gaztelania	beste	ez dakit	
3.1. <b>Instruktoreak</b> (enpresako tutorea) zein hizkuntza hitz egiten <b>daki</b> ?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
	euskara %				
Euskararen <b>erabilera</b> islatzen duen ehunekoa aukeratu:	0-25	26-50	51-75	76-100	Ez dakit
3.2. <b>Instruktoreak</b> euskaraz <b>hitz egin</b> du <b>zurekin</b> ?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3.3. <b>Lankideek</b> euskaraz <b>hitz egin</b> dute <b>zurekin</b> ?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3.4. <b>Bezero/Hornitzaileek</b> euskaraz <b>hitz egin</b> dute <b>zurekin</b> ?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3.5. Oharrak/Azalpenak					

### 4. DOKUMENTAZIOARI BURUZKO GALDERAK:

	euskara %				
Euskararen <b>presentzia</b> islatzen duen ehunekoa aukeratu:	0-25	26-50	51-75	76-100	Ez dakit
4.1. Lanean erabilitako <b>dokumentazioa</b> (instrukzioak, parteak...) euskaraz (edo euskaraz ere) dago?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4.2. Euskaraz <b>bete</b> duzu dokumentazio hori?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4.3. Oharrak/Azalpenak					

### 5. ERROTULAZIOARI BURUZKO GALDERAK:

	euskara %				
Euskararen <b>presentzia</b> islatzen duen ehunekoa aukeratu:	0-25	26-50	51-75	76-100	Ez dakit
5.1. Lanean aritutako guneko <b>kartelak</b> euskaraz (edo euskaraz ere) dira?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5.2. Oharrak/Azalpenak					

### 6. IRITZI PERTSONALAK:

6.1. <b>Euskaraz</b> lan egin <b>nahi</b> duzu?	Bai	<input type="checkbox"/>	Ez	<input type="checkbox"/>	Ez dakit / Berdin zait	<input type="checkbox"/>
6.2. <b>Euskaraz</b> lan egiteko <b>gai</b> zara?	Bai	<input type="checkbox"/>	Ez	<input type="checkbox"/>	Ez dakit / Berdin zait	<input type="checkbox"/>
6.3. Oharrak/Azalpenak						